


PARKEAK BIZITZEKO MODU BERRIAK



HERRI
HEZITZAILEA

- Herri Hezitzailea lantaldea:

Irrien Lagunak Kluba, Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea, Hik Hasi pedagogia-ekimena, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak ikertegia (Huhezi, MU), Ikastolen elkarteko aisialdiko taldea, Tabakalera, Amarauna Sarea, Pil-pilean euskara elkarte, Kukumixo, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdiko elkarte, Urtxintxa Bizkaia Eskola eta Ttakun Kultur Elkarte.

- Koaderno honen egilea eta eragilea:

Alfredo Hoyuelos Planillo eta Txusma Azkona Mendizabal (Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea)

- Maketazioa eta ilustrazioak:

Eñaut Aiertzaguena Bravo

-Argazkiak:

Lizarrako eta Iruñeko udal haur-eskolen taldea

- Inprenta:

Gertu inprimategia

- Babesleak:



- Bildumaren ISBN:

978-84-606-672-6

- ISBN:

978-84-606-7251-7



Zazpi kontzeptutan oinarritzen da hemen proposatzen dugun aisia-eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu.

Horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

- Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura aitortzea**;
- Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea;
- Eurek eraikitako **aisia hezitzaile** eta **euskaldunaren** bitartez, **aniztasunean berdin eta parekide izanez** eta **ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana** indartzea
- Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

AURKIBIDEA

- SARRERA	6
- HAINBAT IDEIA PENTSATZEKO ETA EZTABAIDATZEKO	8
- BESTE FILOSOFIA BAT JOLASPARKEETAN ERE BAI	10
- FASE BTZUK	11
- ADIBIDE BAT. LAKUNTZA	14
- BELDURRAK ETA ABAR	15
- SAIOAREN ANTOLAKETA	17
- PARKEA SORTU EDO ERALDATU	20
- GERTAKARIEN HIRIA	22
- BUKATZEKO ETA HASTEKO ELKARRIZKETA BAT	24
- BIBLIOGRAFIA	35

SARRERA

“Haur jolas espazioa sortzen badugu, sortzen dugu mundua non gizakiak esentziala dena berraurkitzen du eta hiriak haurra berraurkitzen du. Ezin dugu haurra behartu hiria deskubritu dezan, ez bagaude prest hiriak haurra birdeskubritu dezan. Hitz hauekin nire xedea hauxe da: haurra berriz agertarazi hiriaren osagai esentziala lez”.

Aldo Van Eyck

Aspaldiko kontua da kalearen jãbegoa irabazteko ahalegina. Batzuk eta besteak ahalegindu dira horretan.

Guk ere ez dugu gutxiago izan behar. Baina... nor da GU hori?

Hiritarrak: emakumeak, gizonak, adinakoak, elbarrituak, kirolzaleak, Down sindromedunak, gazteak, haurrak...

Haurrak aipatzen ditugunez, hona gure ikuspegiaren berritasuna: nola berreskuratu kalea? Galdera horri haurren behar, nahi eta eskubideetatik nahiz

haurtzaroaren kulturatik erantzutea proposatzen dugu.

Tonucciren liburuaren izenburua gogorra ekarrita, “Haurren begiradaz” egitea proposatzen dugu.

Hau da, haurrek badute kultura propioa mundua ikusteko, bizitzeko modu propioa. Ikuspegi horretatik abiatu nahi dugu gure esperientzia. Vea Vecchik hauxe dio: “Haurrak gai dira pentsatzeko, sentitzeko eta igarri ezinezkoak diren loturak, holistikoak eta ez-estandarizatuak, ezartzeko; gertakizunen esanahia alaitasunez eta plazerez biltzeko; egoera berriak eta sortzaileak asmatzeko eta interpretatzeko; gauze-kiko eta besteekiko enpatiaz jokatzeko; haur horiek gai dira, temati eta axolagabekeriarik gabe beste kulturekiko

“ Haurrek badute mundua ikusteko, bizitzeko modu propioa. Ikuspegi horretatik abiatu nahi dugu gure esperientzia.”

sentikorrak diren azalak janzteko eta, besteei eta euren buruari entzun ondoren, modu sinbolikoan asmaturiko irudi sortzaileetan proiektatzeko.”

Egia da, oraingoz, kalea bere osotasunean irabaztea zaila dugula. Bide horretan, haur-parkeekin hasteko proposamena egiten dizuegu.

Haur-parkearen eraikitzea, edota eraldatzea.

Haur-parkea aipatzen dugu, nahiz eta, gaur egun, haur-parkearen diseinua justu haurrentzat ez izan. Zergatik ha-

lako baieztapena?

Nahikoa da halako parke batera joatea eta minutu batzuk ematea han.... Halakoak ikusi eta entzuteko:

- Ez igo! Jaitsi hortik! Min hartu behar duzu! Zikinduko zara! Utzi hori, kaka da!

Hori ez da egiten! Ez ibili harearekin! Ez ibili lurrarekin! Ez ibili!...

- Sarri sortzen dira gatatzak guraso eta haurren artean edozein aitzakia dela eta; gustu eta plazer unea deseroso eta desatsegin bihurtzen dugu.



HAINBAT IDEIA PENTSATZEKO ETA EZTABAIDATZEKO

“Nagusientzat pentsaturiko zerbitzuak ez dira onak haurrentzat. Haurrari etxe azpiko jolaslekua kendu eta askoz ere handiagoa eta aberatsagoa den beste bat eskaintzen badiogu bere etxetik kilometro batera, banaketa eta espezializazioaren logikaren arabera, jolaslekua kendu egin diogu eta kito!”

(Francesco Tonucci)

Umeez ezin dute askatasunez esperimentatu. Izan ere, ondoan, helduak dituzte begi begira. Behatzen, hobe esanda. Askotan, haur/nagusi ratioa azken horren alde desorekatzen da nabarmen, eta “haur-parke” batean pertsona heldu gehiago egoten dira haurrak baino (ama, aita, izeba, amona, aitona...).

Françoise Doltok esaten du jolasa “askatasunez arriskatzeko plazera” dela. Gaur, berriz, orokorrean, nolakoa da jolasa? Arriskurik gabekoa, kontrolatua, dibertsiorik gabea.... Eta arriskurik gabeko jolasa oso arriskutsu bilakatzen da.

Azkenik, haurrek nahiago izaten dute etxean telebista ikusten edo “play”arekin jolasten geratu, gurasoen

“lasaitasunerako”.

Aipatzen genuen nahikoa dela parkeari zenbait minutuz begira egotea, ulertzeko haurrek aukera gutxi dutela disfrutatzeke:

Parkeen eraketa ere kontuan hartzea da. Jolasak erdian, eta inguruan bankuak, berorietan eseri eta haurrak ondo kontrolatuta izateko. Francesco Tonucci pedagogoak, “kontzentrazio-esparruak” balira bezala deskribatzen dizkigu parke hauek. Haurrek ez dute inongo “intimitaterik”. Ez dute helduaren begirada kontrolatzailetik ihes egingeko aukerarik.

Hor sortzen diren jolasak oso estereotipatuta eta kontrolatuta daude. Tonuccik ere “gabiak hamsterrentzat (txirris-tak, zubiak eta abar)” eta horrelakoak aipatu edo deskribatzen dizkigu.

Baina hainbeste denbora pasatu al da, bada, gure “garaietatik”?

Gure haurtzaroko jolasak aztertzeak zer orotzapen ekartzen dizkigu?

Leku “libreak” ziren. Jolaslekurik gabeko parkeak. Itxitasunik gabeko zonaldeak. Zona “askeak”. Eta aspertzen al

ginen?

Ez horixe!

Gaur egun, aldiz, parke “modernoetan” sarri entzuten dugu esaldi hau: “Aspertzen ari naiz!”.

Nola da posible?

Oso erraza da: salbuespenak salbuespen, horrenbeste mugatu ditugu, horrenbeste zuzendu ditugu beren jardueretan, non sormena zapuztu diegun eta jada, baten batzuek ez dakiten dibertitzen, neurri batean erabakimena galdu dutelako eta gurekiko, nagusiekiko, mendekotasuna sortu dugulako.

Lehen ez genuen jolasteko leku konkreturik. Jolaslekua haur taldetxoak zegoen lekua zen: parkea, auzoko plaza, kaialdea, pilotalekua, eremuak... Horietan, guk sortzen genuen jolasa: ezkutaketa-
ra, inkea, puxtariak, txapak, zuhaitzeta-
ra igo, bazkaritxoak egin....

Futbol-taldeak antolatu, eta atek jertseekin egiten ziren. Ez genuen “arauzko ateen” beharrik. Horrek “negoziatzera” behartzen gintuen. Gatazkak konpontzera. Gola izan al da ala ez? Falta izan da? Barruan? Penalti!

Orain, berriz, gatazkak ekiditen dira. Edota nagusiok epaile bihurtzen gara eta beldurra diegu liskarrei. Haurrek ez dakite nola konpondu gatazkak, beti nagusiak izan direlako gainean erabakitzeko zer bai, zer ez. Zer ongi, zer gaizki.

Parkeetan, edo, hobeto esanda, gure

jolas-zonaldeetan, ez genuen “soilik” jolas egiten. Bizitzarako prestatzen ari ginen.

Arauk ikasten genituen: arauak sortzen, arauak betetzen, arauak betetzen ez zirenean ondorioak onartzen, lagunekin enpatizatzen, jolasak asmatzen, sormena lantzen.

Besteei entzuten genien, eta beraien esperientzietatik ikasten genuen. Askotariko adimenak ederki lantzen ziren: kognitiboa, emozionala, espaziala, artistikoa, eta abar.

Horixe da, orduan, berreskuratu nahi dugun espiritua.

Jolasa modu libre batean gara daitekeen espazioaz ari gara, non haurrek beren gaitasunak garatu ahal dituzten, eta beraiek ere parte hartzen duten proposamenetan parte hartzen duten.



BESTE FILOSOFIA BAT JOLASPARKEETAN ERE BAI



Helle Nebelong. Murergaarden..

Ikus ditzagun orain jolas-parkearen sorreran edo eraldaketan planteia daitezkeen pausoen proposamen batzuk.

Noski, hitzak dioen bezala, proposamenak dira. Orientazioak. Bidea norberak egin beharra dauka. Ez daude bi kasu berdin, baina, halere, orientazioak balia garri izan daitezke edozeinentzat, leku gehientsuenetan sortzen diren arazoak berdintsuak izan baitaitezke.

Arazo hitza aipatzen dugunean, hitz

“Araza hobekuntzarako aukera da. Araza ikasteko bidea da.”

horri eman zaion esanahi negatiboa baztertu nahiko genuke.

Araza modu positiboan ikusten dugu, eta hala bizi behar dugu. Araza hobekuntzarako aukera da. Araza ikasteko bidea da. Beraz, arazoak modu positiboan tratatuko ditugu.

Eta, araza aipatzen denean, errakuntza, hutsunea, ikerketa aipatu behar ditugu.

Hurrek ederki erakusten digute, beren lehen urratsak ematen dituztenean, ikasteko zeinen garrantzitsua den erratzea. Hau da, errakuntzarik gabe ez dagoela hobekuntzarik.

Mario Alonso Puig mediku eta hizlari ospetsuak dio: “Errakuntzak egiten ez ditugunean, gure benetako potentzialtasuna ez dugulako behar bezala aztertzen edo arakatzen izaten da. Errakuntzak asko erakutsi ahal digu, baldin eta ikasteko baimena ematen badiogu”.

Errakuntza ezinbesteko laguna dugu bizitzan hobetzeko. Hurrek erakusten diguten moduan, bide honetan huts egingo dugu, baina hutsegite horiek denak izanen dira ezinbesteko hobekuntza-ikasgai modura.

FASE BATZUK

Hau guztia kontuan harturik, has gaitetzen diseinatzen jolas-eremu bat berritzeko edo sortzeko interesgarriak deritzegun faseak.

Sentsibilizazioa

Lehen urratsa sentsibilizazio-prozesua da.

Saio hauetan, inplikaturik dauden talde guztiek parte hartzea komeni da: gurasoek, auzo elkarteek, merkatarri-elkarteek, kultura-eragileek, ikastetxeek, udalek... Guztiei sortuko zaizkie zalantzak, kezkek, beldurrak...

Ezinbestekotzat jotzen dugu horiek guztiak adierazi edo azaleratzea.

Hori da sentsibilizazio-fase honen xede nagusia, horiek guztiak ateratzea, hitzez adieraztea... Ez da komeni barruan geratzea, horrek etorkizunean gatazkak sortuko baititu.

Azaleratu ezean, guk "probokatu" beharko ditugu, azalera daitezen.

Beraz, sentsibilizazio-fase honetan, bakoitzak ikusi beharko dugu zenbat denbora eskaini beharko dion. Edota eskaini ahalko dion. Fase hau ere ezin baita denboran izugarri luzatu. Lehen aipatu moduan, errakuntzak lagunduko digu hobetzen, eta horixe izanen da bi-

dea.

Gerta daiteke bilera pare batekin kezka oro argitzea, edo, aldiz, saio gehiago behar izatea.

Sentsibilizazio-fase honetan, dokumentazioa oso garrantzitsua da. Beste esperientzia batzuk ezagutzea oso inportantea da.

Adibide batzuk ezagutzea lagungarri eginen zaigu utopia ez dela ulertzeko; zerbait erreala dela, posible dela.

Dokumentazioa (idatzizkoa, ikus-entzunezkoa) beharrezkoa da prosesuei garrantzia emateko eta umeen ideiak aztertzeke eta hausnartzeko. Izan ere, oraingo parkeetako behaketak, argazkiak edota bideoak kritikoki aztertzeak izugarri lagunduko digu gertatzen ari dena hobeto ulertzen, eta zein ondorio dituen jabetzen.

Sentsibilizazio-fase honetan umeen hitz, pentsamendu eta sentimenduak ere ezin ditugu ahaztu. Haien ere ideiak, proposamenak eta argibideak emango dizkigutelako.

“Saio hauetan inplikaturik dauden talde guztiek parte hartzea komeni da.”

Une honetan, helduok hausnarketa egiteko garaia da, eta geure buruari eskaera egiteko unea: haurrekin zintzotasunez jokatu behar dugu.

Haurrek jakin behar dute beren proposamenak benetan kontuan hartuko direla. Ezin diegu huts egin. Ezin diegu sinetsarazi beraien hitza kontuan hartuko dela, eta gero, "helduen" erabakiak egiten jarraitu.

Funtsezkoa da zintzotasun horrekin jokatzea.

Hala dio Tonuccik: "Eman hitza haurrei. Lehenik egin beharrekoa eta garrantzitsuena haurrei protagonistaren papera ematea da, beraiei ematea hitza, beraien iritziak partekatzeko aukerak eskaintzea, eta guk, nagusiok, entzulearen jarrera hartzea, ulertzeko gogoz eta haurrek esaten dutena kontuan hartzeko borondatez. Zer esanik ez, hau-

rentzat proposatzen den horrek hiritar guztientzat balio du, zaharrentzat, elbarrituentzat, etorkinentzat. Hona, berriaz, haurra guztientzat bide-zabaltzaile eta berme-emaila den adibidea".

Segituan helduko zaizkigu beldurrak: eta ezinezkoa dena eskatzen badute?

Konfiantzaz aritu behar dugu haurrekin. Haiek proposatzen digutena ez da hitzez hitz betetzekoa. Ulertu behar ditugu haien nahia, gogoia, bizipoza, eta hori gauzatzeko bideak ipintzen saiatu. Haurrak segituan ohartuko dira zintzotasunez jokutzen dugun ala ez.

Kezkak

Gizarte honetan, gero eta zabalduago dago beldurra. Gauza askok beldurtzen gaituzte, eta, beldur horren ondorioz, gure seme-alabak "babestu" egin nahi ditugu.

Babes horretan, gurasoek, hezitzaileek eta erakundeek (eskola, udaletxe, ...) parte hartzen dute.

Baina, galdetu al diegu haurrei zein den beraien benetako beharra? Zeren

"Haurrentzat proposatzen den horrek hiritar guztientzat balio du."



Parc Lafontaine Playground – Montreal, Canada

<https://playgroundology.wordpress.com/category/helle-nelong/>

beldur dira?

Babes “deskontrolatu” honetan, ahaztu egiten ditugu gure esperientzia propioak, eta, aldi berean, ez gara ohar-tzen gehiegizko babes horrek “babes eza” erakarri ohi duela.

David Bell-ek, Londresko Middlesex Unibertsitateko “arriskuen ikertzaileak”, baieztatu du haur-parkeetan jartzen ari diren gomazko zoruak, istripuak gutxitu ordez, gehitzen ari direla. Arrazoa? Haur eta nagusiok, ingurua ziurragotzat jotzen dugunean, arrisku handiagoak – eta handiegiak – onartzen ditugu. Norvegiako Ellen Sandseter psikologoak, Norvegia, Ingalaterra eta Australiako haur-parkeak ikertu ondoren, oso dorre altuak ipintzearen alde agertzen da. Bere ikerketan, baieztatu du haurrak ez direla goraino igotzen lehen aldian; poliki-poliki jartzen dituzte frogan beraien gaitasunak. Eta, hauxe da hoberena, noizbait istripuren bat izan duten haurrek altueri beldur gutxiago garatzen dute beste haurrek baino, alegia, istripurik izan ez duten haurrek baino.

Honen ondorioz, zera baieztatu dezakegu:

Zenbat eta “babes” gehiago, orduan eta ziurtasun gutxiago. Babes gehiegi izateak, segurtasun eza dakar; arriskua ezinbestekoa da haurren garapen osasuntsua sustatzeko.

Nagusi, guraso, hezitzaile nahiz erakunde (eskola, ludoteka, udala...), guztiok argi izan behar dugu hori guztia

haurren jolasa eta jolaslekuak diseinatu edo aukeratzeko garaian.

Beldurra dela eta, hauxe dio Tonucci pedagogoak:

“Helduak beldur dira eta arrazoi dute, defentsaren bidea itxaropen eta etorkizun gabeko bidea baita. Haurrak etxean ixteak, etxeko istripuen arriskuen aurrean jartzera, haurrak telebistaren esku uztera eta oinarrizko bizipenak galaraztera garamatza. Beldurrak gainditzea oso zaila da, eta ez dut uste hausnartzearekin bakarrik lor daitekeenik. Administratzaileak egin behar dira kargu, eta hiritarrei lagundu. Hainbat mailatan lan egin beharra dago: batez ere, gurasoei, haurrek denbora librearen beharra daukatela ulertzen lagundu behar zaie, denbora hori haurrek kudeatu behar dutela, beraien kabuz arriskatu behar dutela, hainbeste gauza egin eta hainbeste eskola osteko eskolotara joan beharrean. Beraien haurren gaitasunetan konfiantza berreskuratzen lagundu behar zaie, segur aski, pentsatzen dutena baino gaitasun gehiago baitituzte. Ikuspegi indibidualista eta defentsibotik irteten lagundu behar zaie, haur guztiek etxetik kanpo elkartu behar dutela eta helduak haien erreferentzia eta segurtasun-puntua izan behar dutela pentsatuz”.

“ Ingurua ziurragotzat jotzen dugunean, arrisku handiegiak onartzen ditugu.”

ADIBIDE BAT. LAKUNTZA



Lakuntzako parke proiektua

Lakuntzako herrian (Nafarroa), haur-parke edo espazio baten eraikuntzaren esperientzia aurrera eraman da, herri-partaidetzaren eta haur-kulturaren ikuspegitik eta, alde horretatik, adierazgarriak dira Jone Aretaren hitzak; Lakuntzako ekimenaren eragileetako bat da Jone, eta guraso eta haurrekin aritu zen.

Hauxe azaldu digu Jonek, helduekin nola landu behar den eta zer sentimendu kontuan hartu behar diren azaltzen duen atalean:

“Gurasoekin lanean hasten zarenean, beldurra eta konfiantza falta izaten dira azalarazten diren lehen sentimenduak. Beldurra, haurrak min hartu edota edozein gauza gerta dakiokelako. Eta konfiantza falta, gurasoek euren adinean egiten dituzten gauzak egiteko

prest ikusten ez dituztelako euren seme-alabak. Euren seme – alaben gaitasunetan konfiantzarik ez dutela erraz ondoriozta daiteke euren bizipenetatik.

Garai desberdinak dira, gu bakarrik ibil gintezkeen herri osoan, baita basoan ere, baina gaur egun arrisku gehiago daude: trafikoa, jende ezezaguna,... Gainera, gaur egungo haurrak ez dira horren arduratsuak.

Egun, edozein arrisku dagoen unean edota lekuan, gurasoak adi daude, haurraren jarrera kontrolatzeko prest. Arrisku-egoerak saihesten badizkiegu, nola bereganatuko ditu haurrak nahiko gaitasun arriskuen aurrean modu egokian jokatzeko jakin ahal izateko?

Saioan parte hartu zuten helduek egun haurrari ardura gutxiago ematen dizkiogula onartu zuten, eta dependentsia handiagoa duten haurrak sortzen ditugula da horren ondorio zuzena. Eta gure helburua ez al da haur autonomoak hezteak?

Hausnarketa egin ondoren, gurasoek baliabideak eta estrategiak behar dituzte. Hausnarketa egiteak aldaketa-prozesu baten hasiera izan behar du, eta aldaketa-prozesu horretan laguntza eta orientazioa eskaini behar dira.”

BELDURRAK ETA ABAR

Lehen aipatu dugun moduan, bada nagusio artean sustraituta dagoen sentimendu bat: beldurra. Azal dezagun zertxobait gehiago kontu hau.

Mario Alonso Puig-ek hauxe dio:

“Ezin dut ebidentziekin azaldu nondik gatozen, baina, mundura etortzen garenean, gurekin anaia bikia dator, beldurra. Orduan, gure barnean uste edo sineskeria bitxiak sortzen dira. Lehena, barruan zerbait desegoki izanen bagenu bezala esperimentatzen dugu; bigarrena, mundua leku arriskutsua dela; hirugarrena, aldiz, guztiz bakarrik gaudela.”

Hau guztia kontuan hartu behar dugu mugitzen gaituzten sentimenduak ulertzeko.

Baina ez dugu geratu behar ulertze soillean, eta aurre egin behar diegu beldur horiei, sormen-prozesuei mugarik ez jartzeko.

Ezin dugu arrazoi bakarra aurkitu beldurren zioak ulertzeko, hainbat arrazoi-
ren batuketa izaten delako. Gaintetiko azterketa txikia eginez, kanpoko eta barneko arrazoiak aurki ditzakegu:

Kanpokoak:

Argi dago komunikabideek duten era-

gina, berriek beldurra areagotzen baitute: istripuak, sexu-gehiegikeriak... Lehen ere baziren, baina gaur egun eguneroko notizietan behin eta berriz errepikatzen dira, eta helduon beldur-
rrak handiagotzen ditu horrek.

Bestalde, lehen, herri, hiri edo auzoetan arriskuak definiturik zeuden: ibai-
errekak, plaza hau, beste errepide hura, eta gutxi gehiago.

Orain, berriz, hiria, herria, auzoa, bere osotasunean da arriskutsua: edozein leku eta unetan gerta dakiguke zerbait.

Barnekoak:

Gure gizartea eta gu geu, gizarteko partaide gisa, ziurgabetasun orokorrean bizi gara: lana, teknologia, harremanak...; horiek guztiak ez dute lehen zuten balio berbera.


“Aurre egin behar diegu beldur horiei, sormen-prozesuei mugarik ez jartzeko.”

“Orain, hiria, herria, auzoa, bere osotasunean da arriskutsua.”

Gure bizitza osoan ziurgabetasun etengabe batean bizi garenez, horixe da gure seme-alabengan proiektatzen ari garena. Gure zalantzek, beldurrek edota izuek eragina dute gure erabakietan, eta arriskuak ikusten ditugu leku eta une guztietan; horrela, gure seme-alabei beren bidea egin dezaten debe-

katzen diegu.

Hori guztia ulertuta, sentsibilizazio-saioetan gurasoekin lan egin behar dugu, eta baita ondorengo faseetan ere, ateratzen joanen baitira prozesuan zehar. Eta zirrarak ezin ditugu ukatu edota epaitu, beraiekin aritu eta landu baizik. Benetako entzumenetik hasiz.



SAIOAREN ANTOLAKETA



*Garden City Park. Richmond, Colombie britannique, Canada.
<https://www.pinterest.com/pin/521080619356279426/>*

Sentsibilizazio-saioaren edo saioen ondoren, parkearen sorrera edo eraldaketarako ideiak sortzeko fasea dator.

Fase honetan, haurrek izanen dute protagonismo nagusia, beraien hitza, pentsamenduak, sentimenduak kontuan hartuko ditugu, benetan.

Hautzaroaren kultura-atalean ederki azaldu denez, "entzutearen pedagogia" ezinbestekoa da saio hauen antolaketa.

Horrek ez du esan nahi haurren entzute "soila" egin behar denik. Areago doa. Nagusien aldetik konpromisoa eskatzen du. Horrek haurren eta haurtzaroarengan, orokorrean konfiantza

eskatzen du. Eta, horrekin batera, jolasaren defentsa ausarta egitea proposatzen dugu.

Ez da hau lekua honen inguruan luze aritzeko, baina, zalantzarik gabe, jolasa haurren oinarrizko tresna da ikasteko, bizitzeko eta bere osasuna –fisikoa eta mentala– eta ongizatea ziurtatzeko.

Antropologikoki, badakigu umeak jolastu gabe hil egingo liratekeela. Izan ere, jolasa behar biologikoa da. Ikerketek diote jolastea osasungarria dela umeentzat, sistema immunologikoarentzat. Benetako jolasa (ez zerbait ikasteko gidatutako jolasa) abentura da, zalantza, zoria, ametsa, ezezagunera bidai, alegiazkoa.

Umeen pentsamendu eta sentimenduak askoz malguagoak, argiagoak dira. Arazoei sormen gehiagorekin aurre egiten diete. Jolasten, umeeek hainbat aukera asma ditzakete, ezinezkoa posible bihurtuz.

Saioetan zentratuta, hainbat galdera sortzen zaizkigu liburuxka honen irakurle gisa: saio kopuruak, saioen bideratzea, saioetarako haurren taldekatzea, non egin, zer eskaini saioetarako, nola egin proposamenak...

Ez dago erantzun bakarra. Nahiz eta filosofia horri eutsi, beste guztia irekia da.

Saioa hurrekin osatu beharra dago, hau da, beraiek markatuko dizkigute denborak, taldekatzeak (eskola batean, talde homogeenagoak egin daitezke; herri txiki edo auzo batean, taldeak heterogeenagoak izan ahal dira), proposamenak...

Egia da hurrek nolabait "entrenatu" beharra dutela, eta saioak horretarako prestatu behar dira. Lehen saioetan -gure sinesgarritasuna ez galtzeko eta konfiantza lortzeko- azaldu behar diegu hurrei zein den asmoa, eta, esan legez, zintzotasunez jokatu be-

har dugu: mugak hasieran jarri behar ditugu, baina ezin dugu dena muga bihurtu. Proposamen orori ezin diogu ezetzkoa eman.

Horretarako denbora behar da, ez dugu presarik izan behar. Umeeek haien denbora, mementoak behar dituzte ideiak, sormena eta hausnarketak adierazteko.

Beste une batzuetan Hoyuelos, (2009) honako hau esan izan dugu: "Haurrak ez dira erlojuaren neurriaren arabera ibiltzen. Haien denbora uneen aukerarena da, hazkuntzak berak bere bizitza-ibilian, -fluxuan eta -ibilbidean ematen dituenak. François Jullienek (2005; 38) esaten duenaren arabera, badi-rudi hurrek badakitela -estrategikoki- une egokiari itxaroten, "gertaeran une horren arabera jokatzeko, behartu gabe". Hori dela eta, beren jarduerak eraginkorrak dira: "Ekintza eraginkorra pentsatzeko, kontuan izan behar den azken koordinatua denbora da. Izan ere, abagunea ekintzaren eta denboraren arteko kointzidentzia da, unea bat-batean aukera bihurtzea eragiten duena, unea egokia izatea eta gure bidera etortzen dela ematea (...), gutxieneko denbora eta aldi berean optimoa, ora-indik ez eta jada ez delakoen artean ia nabarmentzen ez dena".

Hautzaroaren denbora bizitzea gertaera bihurtzen diren ekintzengatik harritzen uztea da. Jazoera horiek hunkitu egiten gaituzte, ustez ahaztuta genituen zirraren oroimena eta nostalgia i-

"Jolasa behar biologikoa da."

"Gure sinesgarritasuna ez galtzeko zintzotasunez jokatu behar dugu."

tzultzen baitzizkigute. “Jazoeraren zirra-
ra erakargarri, menderatzaile” horrek
haurren jardueren zentzuaren enigma
interpretatzera eta arriskatzera bultzat-
zen gaitu, gure burua hobeto ulertzeko
modu bat balitz bezala (...). Malaguzzik
aipatzen du haurrek denbora behar du-
tela, beren onena emateko temperatu-
ra egokia lortzeko, beharrezkoa dela
haurrei itxarotea, beren aukerez ohar
daitezen, ezin sumatuzkoak izan bai-
taitezke. Egin ditugun ikerketetan, eta
haurrekin urtebeteko landa-lana egin
eta gero, ikerketa une horretan hasten
zela zirudiela uste izan dugu beti.

Saio hauetan, hainbat material erabiliz,
sortze-prozesuak gerta daitezen susta-
tuko dugu. Nagusien rola eta zeregina
ondo planteatzea eskatzen du horrek:
umeen alboan egon (lagun egin), haien
prozesuak sustatzeko; entzun, kon-
promisoak hartzeko; elkarrizketa ho-
rizontala (ez hierarkikoa) eta kulturala
(hainbat baliabide) eskaini, eta, batez
ere, denbora eman; izan ere, sorme-
neko prozesuek denbora behar dute.
Batez ere, garrantzitsuena da umeen
ideiak gure ideiekin ez ezabatzea edo-
ta estaltzea.

Bestalde, material-eskaintza askota-
rinoa eta aberatsa egin behar zaio, zi-
rriborroak eta maketak egiteko.

Aipatu behar da nagusiaren rolaren
barruan pauso edo saioen dokumen-
tazioa dagoela. Dokumentazio hori la-
gungarri eginen zaigu ondoren parke-
rako proposamenak osatzeko garaian.

Materiala, esan dugun bezala, askota-
rinoa eta aberatsa:

Batetik, manipula daitekeen materiala
(buztina, margoak, arkatzak, oreka, alan-
brea, paperak, kartoiak...); bestetik,
manipulatzeko objektuak: makilatxoak,
plastikozko koilaratxoak, metalezko
zein egurrezko objektuak (egur-zatiak,
giltzak, kateak ...).

Azkenik, egoki litzateke bolumena du-
ten materialak ere haurren eskura jar-
tzea: kutxak, egurrezko blokeak, eta
abar.

Saioen antolaketarako kontuan hartze-
koak:

Saioen helburuak:

Hainbat materialekin esperi-
mentatzea; jolas librean aritzea;
proposamenak egiteko aukerak
garatzea; jolas-eremurako propo-
samenak asmatzea...

Saioaren antolaketa:

- Taldekatzeak: talde homogeen
edo heterogeenak.
- Kopurua.
- Lekua.
- Deialdia nola egin.
- Saioen amaierako bilgunea.
- Jolasen inguruko hausnarketa...

**“Garrantzitsuena da umeen
ideiak gure ideiekin ez
ezabatzea.”**

PARKEA SORTU EDO ERALDATU

Behin haurren proposamenak jasota, horiek gauzatu behar dira.

Pauso edo atal honetan, interesgarria iruditzen zaigu inguruaren inplikazioa: herriko zerbitzuak, fabrika edo lantegiak (material interesgarria eskain dezaketenak), guraso eta helduak, merkatarri-elkarteak eta dendak, eta abar.

Tonuccik berak azaltzen digu “parte-hartzea irtenbide sozial modura”:

“Defentsaren bidearen kontrakoa den bigarren bide edo irtenbide bat badago. Etsipenari uko eginda, gutxi batzuek nahi duten, azkarregi doan eta ongizate publikoarekin, hiritarren zorientasunarekin eta bizitza-kalitatearekin zerikusirik ez duen aurrerabide hau salatzen duen bidea, hain zuzen ere. Norbanakoaren arazotzat baino, arazoa sozializat eta politikotzat jotzen duen bidea. Joera-aldaketa eskatzen duen irtenbidea da, hiria aldatzea eskatzen duena; atzeraka egin nahi ez duen bidea, egungo konplexutasun eta aberastasunaren arabera egokia den modu desberdin eta berri batean aurrera egin nahi duena, betiere, sozializazioari, elkartasunari eta zorientasunari uko egin gabe”.

Jada haurren interesak eta ekimenak nahiz inguruko parte-hartzea eta erakunde inplikazioa ziurtatu direlarik, parkea sortu edo eraldatzeari ekinen diogu.

Ikusirik haurrek orokorrean dituzten interesak, badira kontuan hartzeko orientabide batzuk.

- Lurzati lauak baztertu.

Aldo Van Eyck arkitekto holandarrak emandako hitzaldi batean, hauxe zioen:

“Metro baten eta metro eta erdiren arteko desberdintasuna txikia izanda ere, nahikoa da espazio handia espazio txiki askotan zatitzeko. Metro eta erdiko tontoretik, mundua oso era desberdinean ikusten da. Aldiz, badakit halako espazio batek kontrola zailtzen duela. Baina aldapa, bailara eta mendixkaren



Adventure Playground

mirariak barneratzen ari gara”.

- Arriskua duten eraikuntzak:

Ez dugu istripu larririk sortu nahi, ez horixe. Aldiz, haurrei beraien irudimena bultza ditzaketen eraikuntzak eskaini behar zaizkie.

Nork ez du jolas egin maila edo koskatxo batean igota, “menditik behera erortzeko arrisku bizian” zegoela irudikatuz?

Horixe proposatzen dugu, abenturak eta sekretuak bizitzeko aukerak eskaintzea.


- Belaunaldien arteko espazioak:

Egoki dakusagu, sortzen diren espazioak hainbat adinetako haurrentzat izanik, adin-tarte bakoitzak hainbat aukera izatea eraikuntza horrekin modu askotara komunikatzeko.

“Nork ez du jolas egin maila edo koskatxo batean igota, “menditik behera erortzeko arrisku bizian” zegoela irudikatuz?”



GERTAKARIEN HIRIA



Gertakarien hiria. Eider Holgado eta Federica Martella. La casa del vacío. Arte eta Arkitektura Eskola. 2011-2012an egindako proiektua.

Haurren irudimenaren adierazgarri gisa, eta aurreko hitzen baieztagarri, Donostiako “La casa del vacío” lantegian egin zuten esperientziaren inguruko elkarrizketatxoak jaso dugu hemen. Lantegi horretako arduradunak Eider Holgado eta Federica Martella arkitektoak dira. Erantzunetan, umeen ideiak eta kultura agertzen dira adibidetzat. Maketa hau aukera bat da hiriak beste modu batera pentsatzeko eta osatzeko.

Nola sortu zen hurrekin hiri-proiektua egiteko ideia?

Eider eta Federica:

Hasiera batean, lantegia hilabeterako pentsatuta zegoen. Azkenik, ikasturte osoan luzatu zen.

Memento horretan Donostiako alde zaharrean kokatzen zen “La casa del vacío-Escuela de arte y arquitectura” lokalean hasi ginen hiria osatzen.

Lantegian, auzoko zazpi hurrek parte hartu zuten, 4 eta 11 urte artekoek.

Lehenik, haur-eskalan egin genuen hiria. Aurrerago, dimentsio txikiagoko

beste hiri baten maketa egin genuen.

Saio teoriko batzuetan arkitektura eta hirigintzako eredu edo jarraibide batzuk eman ondoren, haurrek beraien hiria sortu edo proiektatu zuten, eta erabaki zuten non ipini etxeak, kaleen izenak, espazio kolektiboen kokapena, kale-altzariak...

Garrantzitsua izan zen haien imajinarioa kontuan hartzea, haiek hiria nola pentsatzen duten aztertzea.

Zeintzuk ziren haurren ideia nagusi edo berezienak hiri-erakuntza baten proiektuaren inguruan?

Eider eta Federica:

Hiriaren erlazioa naturarekin (adibidez, etxe guztiek arbola edo lorategia zuten), espazio kolektiboen existentzia (bilerak egiteko, dibertitzeko...) edo autoen presentzia eza, besteak beste. Haiek pentsatzen dute hiriak labirinto moduko bat izan behar duela, batez ere jolasteko, ezkutatzeko. Bestalde, maketan ikusten denez, zubi mugikor bat jarri dute, hiriari dinamismoa emateko.

Haurren ideietatik, zer da gehien harritu zaituztena pertsona helduon ikuspegitik?

Eider eta Federica:

Haurren gaitasuna espazio magiko eta liluragarriak sortzeko (sabai gorriko etxea, zuhaitz-etxea, lore-etxea, bi etxeren arteko gela magikoa, dunen auzoa,

labirintoak, mendixka-eskailerak...).

Azal dezakezue hiriaren maketa?

Eider eta Federica:

Haur-eskalan eginiko hiria amaitu ondoren, neurri txikiagoko maketa osatu zuten, non haiei bitiztea gustatuko litzaiekeen hiri "ideala" sortu zuten.

Saio bakoitzean, hiri baten beharrak planteatu ziren, eta guztien artean erabaki zituzten.

Hiri ludikoa proiektatu zuten, jardueraz betea. Labirinto, duna, errota, parke eta baratzez osaturiko hiria. Auzoak bi trenbidez loturik zeuden. Etxeak eta lorategiak plataforma horizontalean kokatuta zeuden, ausazko modu batez, eta mendixka handi baten bidez ailegaten zen hara. Eraikuntzaren teilatu lauan edo terrazan kirol-instalazioak kokatzen ziren.

Haurrek "Gertakarien hiria" deitu zioten.

"Garrantzitsua izan zen haien imajinarioa kontuan hartzea, hiria nola pentsatzen duten aztertzea."

"Hiri ludikoa proiektatu zuten, jardueraz betea."

BUKATZEKO ETA HASTEKO ELKARRIZKETA BAT

Clara Eslava arkitektoa da. Bere dokotrakuntza tesian artisten haur oroimenak –haien proiektu estetikoak garatzeko– aztertzen ari da. Horren barnean, beste gai batzuen artean, parkeen sormenean haur oroimen horiek izan duten eragina.

Clarari eskatu diogu gaia kulturalki kokatzeko. Bere hitzak oso adierazgarriak dira. Gaia kokatzen laguntzen du eta ideia ausartak ere proposatzen dizkigu.



Zure ustez, historian eta gaur egun, zer lotura historiko egon da eta dago haurtzaroaren, jolasaren, arkitektu-raren, hirigintzaren eta hiriaren artean? Nolakoa izan da, zure ustez, bateratze edo konstelazio hori historian, eta, une honetan, zer puntutan dago?

Clara: Hasiera batean, jolasaren historian bertan bilatu beharko genituzke erantzunak, horixe izango bailitzateke beste ikuspegi batzuetatik bereizita dauden eremuak lotzeko haria. Jolas-teko ohitura oso antzinakoa den arren, ezagutza antropologiko gisa, jolasaren historia nahiko alor berria dela esan daiteke.

Galderaren testuinguruari dagokionez, haurtzaroa eta hiria batzeko garaian,

“Jolas herrikoiak jolas kolektiboak dira maiz, eta aldaera asko izaten dituzte.”

funtsezkoa izango litzateke jolasak esparru publikoan ohitura kolektibo gisa betetzen duen tokia kontuan hartzea, eta ez soilik eremu pribatuko edo etxeko ohituratzat hartzea. Jolas herrikoi guztietan gertatzen da hori: horietako batzuk oraindik bizirik daude eta, beste kasu batzuetan, hainbat lekukotasun historiko ditugu eremu ludikoaren kultura oso bati dagokion artean ere; gaur egun, Mendebaldeko hirietan galtzen ari da ondare ukiezin hori, bat-bateko-tasunaren ikuspegitik, behinik behin.

Jolas herrikoiak jolas kolektiboak dira maiz, eta aldaera asko izaten dituzte: jolas batzuk bikoteka garatzen dira; beste batzuk, berriz, talde txikitik, eta jolasaren beraren erritmoak eta bide-ragarritasunak jartzen duten mugaraino ‘handi’ daitezke talde horiek. Dena den, jolasak dimentsio irekiagoa edo kolektiboagoa –taldeak edo modu nahasiagoan osatutakoak– nahiz dimentsio intimoagoa –banaka edo bizpahi-

ru haurrez osatutako taldeak– izan du beti. Halaber, elkarrengandik urruntzen edo elkarrengana hurbiltzen diren bi dinamika hauek ere funtsezkoak dira: izaera arautua edo “game” deritzona, eta askea edo “play” deritzona.

Azpiarratzen ari garen alderdia, hots, araututako jolasaren historia gizartee-tan, oso egituratuta dago eta, gainera, globalaren eta tokikoaren arteko batura islatzen du: hainbat jolas muin berbera duten hainbat kulturaren bertsioak dira, eta, beste batzuk, aldiz, tokiko kulturaren berezkoa dena jasotzen dute. Hemen, adibidez, “sokatira” dugu, eta beste toki batzuetan errugbia izango dute.

Aldiz, jolas egituratuaren aurrean, hemen aztertu nahi dugun gaia jolas askean –“play” delakoa– sortzen diren haurren dinamiketan, baliabideetan, erritmoetan eta metaforetan datza. Izaera askea duenez, jolas mota horren historia ez da hain zehatza, eta eguneroko ohituren jolas-erregistroak aztertzen dituzten ikuspegi antropologikoak erabili behar ditugu. Hala, bada, hainbat tokitan azaleratzen diren izozmendien puntak bezalakoak lirateke.

Jolas librearen –deriba ludikoa den aldetik– eta jolas egituratuaren –aurrez ezarritako arauak eta gizartean adostutakoak dituenak– artean, Caillois-ek “mimicry” edo “ilinx” deritzen jolas motak tarteko erregistroetakoak lirateke. Lehenengoetan, bigarren errealtate bat simulatzen da, eta, askotan, haurrek arauak adostu behar izaten dituzte; bigarrenengoetan, aldiz, errealtatearen pertzepzio argia aldatu nahi da, eta horien barnean hainbat objektu, tresna eta ohitura kultural aurkitzen ditugu, hala nola txirrista, ziba eta zabua.

Zabuaren kasuan, ez dut ikerketa antropologikorik edo landa-lanik egin, baina horren jatorrira hurbiltzen ahalegindu naiz: kultura grekoan jada baze-goen zabua; objektu eta praktika horiek errituaren barnean txertatzen ziren, eta, beraz, errituaren eta jolasaren gaira itzultzen gara berriro... Jolas librearen errutinaren aurkakoa da, hau da, lehen aipatutako desadostasun hori aurkituko dugu berriro: erritua praktikaren kontzientzia izango da, eta errutina horren ukazioa.

Nire ustez, playgroundera hurbiltzeko, izozmendiaren puntan antzeko uhar-teak bilatu beharko genituzke jolas librearen historian. Jean Duvignaud-en *Le jeu du jeu* (Jolasaren jolasa) lanarekin hasiko nintzateke ni, zoragarria baita. Jolas herrikoiei eta kaleko jolasari buruzko lan asko daude. Hala ere, alderdi horiek guztiak hiriarekin, hirigintzarekin, etab. lotzeak diziplinarteko lana eskatzen du, eta hurbilketa eta urruntze interesgarriak dakartza horrek, baina erreferentzia-gune argi bat falta denez, zaila da horietara iristea. Arlo honetan, gaiaren egoera jakin batera iristeko ikerketa-lana beharrezkoa da; ezagutza hori, aldiz, oso garatuta dago jostailuen arloan.

Reina Sofía Museoan duela gutxi egin-dako Playgrounds erakusketaren argazki hori dugu: argazkian, haurren babes-etxe bateko terrazako zabua ikus daiteke; une hartan haur-eskola txiki bat zen, etxebizitza batean kokatutakoa, eta terraza eta zabua zituen. Borondate higienista horrekin, hots, haurrak eguzkitara ateratzeko eta eskolak

“Jolas librearen errutinaren aurkakoa da.”

kalera ateratzeko borondate horrekin, pedagogia moderno horiekin, jolasa oso modu nabarmenean agertuko da, ez soilik onartutako denbora moduan, baita behar baten moduan ere. Esan genezake XX. mendearen hasiera une epikoa izan zela, aire zabaleko irakas-kuntzako mugimenduak abangoardiekin lotu zireneko unea. Horren guztia- ren oinarria lehenago garatu zen, XIX. mendeko pedagogiekin, Froebel-ekin, eta, Juan Bordesekin XX. mendearen hasierako arte-abangoardien garaian artera eta arkitekturara hedatu zen; azken horrek osasunaren aldeko borrokan pisu handia hartuko zuen. Hau da, jolas librea aire zabalarekin lotuta zegoela uler zitekeen, etxe barruko intimitatean ere gerta zitekeen arren, edozein testuingurutan sor daitekeen deriba ludikoan. Baina jolasa imajinario gisa aitortzea naturari lotzen zaio indar handiz, eta hori pedagogia modernoan aire zabaleko eskolaren mugimenduan bilatzen da, mugimendu ideologiko baten moduan: natura ideal moduan, baina baita tuberkulosiaren aurka borroka egiteko praxi funtzionalista moduan. Zergatik amaitzen da, zergatik galtzen eta desagertzen da? Hein handian, penizilina agertu zelako; behar funtzionala desagertu zen, eta bulkada hura galdu zen; gaur egun, ingurumenaren

“Jolasa imajinario gisa aitortzea naturari lotzen zaio indar handiz.”

“Ezin dugu esan ordu erdi jolastokian –kartzelakoan antzeko hesiez itxitako zoru gogorreko barrutia– igarotzea “aire zabalean” egotea denik.”

eta haurren ikuspegi holistikotik berreskuratu da. Hala, bada, hezkuntza-sistemaren barnean, aire zabalean jolasteari utzi genion, eta horrek zituen balio guztiak galdu genituen: izan ere, ezin dugu esan ordu erdi jolastokian –kartzelakoan antzeko hesiez itxitako zoru gogorreko barrutia– igarotzea “aire zabalean” egotea denik.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, goraldi indartsua gertatuko da berriro, hondatutako mundu bat materialki eta existentzialki berreraikitzeke behar-rekin batera, haurrak izan baitziren biktima nagusiak. Imajina ditzagun hiri suntsituak, kontinente txikitua, gabezia handiak, umezurtz asko...: jolasaren gaiak oinarri indartsua izango du hemen.

Azken batean, jolasa eta “kanpokotasuna” lotzen dituzten funtsezko hiru une adieraz ditzakegu: XIX. mendeko pedagogia modernoak, XX. mende hasierako abangoardia historikoak eta Bigarren Mundu Gerraren ondorengo berreraikuntza, fenomeno globala dena; berreraikuntza horrek gizarteko joeren eta kezken eragina jasoko du, 50 eta 60ko hamarkadetako diseinua- ren eta artearen eragina, eta 70eko ha- markadara arte luzatuko da hori; hala, gaur egun, funtsezkoa da espezie oso bat desagertzeko arrazoia aztertzea, aurreko mundua –oraintsukoa– ezerez- tu zuen kataklismo geologikoa gertatu zela baitirudi.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren gertatutako haurren jolasaren berpiz- teak Amsterdamera eta Aldo van Eyck- engana garamatza, playgrounden ar- loan aitzindaria izan baitzen Europan. Arkitekto horren lan gorena aipatu be- har dugu hemen: Amsterdamgo ume-

zurztegia. Nola berreraiki hiria, eta zer egin haur horiekin, haurtzaro horrekin? Lehenik, ostatu bilatu behar zaie, baina baita zereginen bat ere. Horregatik, Aldo van Eyck-ek Amsterdamen berreraikitako orube suntsitu askotan haur horiek parte hartu zuten, ez baitzuten inolako egitekorik, gaur egun muturreko testuinguru hori irudikatzea zaila egiten zaigun arren; orube horietatik harriak eta hondakinak ateratzen zituzten, forma berria ematen hasteko; Amsterdamgo kasuan, orube horiek juduen etxadietakoak ziren, eraikin jakin batzuk sistematikoki eraistearen ondoriozkoak.

Ingalaterran, berriz, haurren parte hartzea ez da soilik noiz nolakoa izango, baita egituratzailea ere; “Adventure Playground” deritzenak dira, Sorensen-en planteamendu nordikoak hartuko dituztenak berriro, eta Lady Allen of Hurtwood-en babesa jasoko dute. Playgrounda ulertzeko modu horretan ez da proposamen gauzaturik egongo, eta ez dira jolaserako egitura iraunkorrak eraikiko; horren ordez, haurrentzako espazio erabilgarri moduan planteatuko dira, eta pertsona heldu batek zaindu, gidatu edo lagunduko ditu jolas-prozesuak eta autoeraikuntzarako proposamenak, berreraikuntzarekin oso lotuta egongo direnak: guk jolas egiteko gure ingurua eraikitzen dugun bitartean, bonbardatutako hiria berreraikitzen ari dira. Itxura batean gidatu gabekoa den jolasaren atzean haurrek helduen errealitatea imitatzen dute argi eta garbi, eta eraikitze borondate kolektiboari erantzuten dio horrek.

Zer gertatu zen beste herrialde batzuetan? Gero eta ikerketa gehiago daude, baina informazioa bateratu gabe dago. Susan G. Solomon-ek Estatu Batuetako

playgroundaren laburpen bat egin du; horren baliokiderik ez dago European, eta horren aurreko interesa gero eta handiagoa den arren, gaiaren inguruko informazioa bateratu gabe dago. Ez dut playgroundaren inguruko ekimenik ezagutzen Italian, eta nahiko deigarria da hori, Reggio Emiliako garapen pedagogikoak izan duen eraginaren aurrean. Pertsonalki, erreferentzia gurutzatuak ikusten ditut esparru honetan: neorealismo italiarra zineman (ezin dugu ahaztu “Bizikleta-lapurra” eta, ondoren, “arte povera” deritzona); industria-diseinuaren garapena Italian, Bruno Munari-ren irudiarekin eta Gianni Rodari idazlearekin. Ikertu beharreko alorra da hori.

Spainian, ez dago ia horrelako ekimenik; XX. mendearen lehenengo herenean abangoardiako jostailuaren aurrean agertutako interesaren ondoren, artista gutxi batzuek lotuko dituzte eskultura, haurtzaroa eta jolasa eremu publiko batean. 1958an, Ángel Ferrantek Caño Roton egindako proposamena Jorge Oteizak gauzatu gabe utzitako ideien eta proposamenen jarraipena da. Zergatik? Oso testuinguru kultural batengatik; baina baita, ziurrenik, plaza mediterranearraren presentzia aktiboa eta kaleko jolasa hartu behar dira kontuan, haurren belaunaldi haiek horrela bizi baitziren, eta klima epelagoa duten hiri ertainetan eta herrietan errazagoa izango da hori bat-batekotasunez gertatzea.

“Playgrounda ulertzeko modu horretan ez da proposamen gauzaturik egongo, eta ez dira jolaserako egitura iraunkorrak eraikiko.”

Frantziak hamar urteko atzerapenez bat egingo du horrekin, baina goral-di handia ezagutuko du; hemen ere egoera aztertu beharko litzateke. Hirurogeiko urteetan, playgroundaren inguruko ekimen ugari garatuko ditu, baina lotura handiagoa izango dute paisaiarekin, batetik, eta pop artearen joerekin, bestetik. Pop mugimenduek objektu hibridoak edo tresna dibertigarriak sortuko dituzte, hala nola “itsaspeko horia”, arkitektoen kolektiboetan oihartzuna izango duena, “Groupe Ludique” zeritzon, adibidez; talde horretako kideek kapsula dibertigarriak egingo dituzte, txirristekin eta eskaileratxoekin. Izan ere, hirurogeita hamarreko urteetatik aurrera, jolas-eremu askok espazioaren konkista, Ilargira egindako bidaia, ekarriko dute gogora. Duela gutxi ezagutarazitako Ekialdeko herrialdeetako jolasen hainbat iruditan “gerra hotzaren” garaiko lasterketa espaziala gogora ekartzen zutela ikus zitekeen.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, AEBk aginte-makila hartuko du sektore guztietan: artea, diseinua, arkitektura, etab.; izan ere, etorkin asko iritsi ziren, gerra aurreko Europako ondare intelektualaren ahalmen guztia zeramatenak. Testuinguru horretan, Philip Johnson-ek, hainbat hamarkadaz arkitektura-kritikaren gurua izandakoak, nazioarteko estiloaren mugimendua sortuko du, eta mugimendu modernoaren globalizazio-ikuspegia abiaraziko... Hala, Johnson MOMAko zuzendaria zen 1952an hau-

rrentzako jolas-elementuak eraikitzeko historiako lehenengo lehiaketa deitu zutenean, eta lehiaketaren sarrera-tes-tuan playground terminoa erabili zuen arte-ikuspegiarekin lotuta. 1952an, beraz, playgroundak nortasun berezia hartuko du.

MOMAren ekintza horren bitartez, playground deritzon nozioa xertatuko da artearen eztabaidan, jolas-esparrua adierazteko. Hainbat diziplinak hartuko dute parte: nagusiki eskultoreek, arkitektoek eta “paisajistek”; gainera, azken horiek diziplina berezia zuten AEBn. 300 proposamen baino gehiago aurkeztuko dira lehiaketara, eta, horien artean, oso interesgarriak izango diren hiru proposamen hautatuko dira: playgrounda berregin daitekeen lan gisa, industrializa daitekeen sistema gisa – jada ez da obra bakarra izango – ikusiko dute proposamen horiek, eta garen-bide berriak irekiko dituzte; baina, aldi berean, konfigurazio-aniztasuna bilatuko dute, anistasun ludikoa lortzeko: gaur egun indarrean jarraitzen du dilema horrek.

Playgroundak nortasun berezia zuen azkenean, haur-ekipamendu generikoaren ideiatik harago, edozein tokitan ezartzeko altzarrietatik harago, eta parke edo plaza gisa definituko diren eremuak sortuko dira, baina ez dira jolas-zelaiak izango. 1952. urtean, “Dijkstraat playground” eraiki zen Amsterdamen, Aldo van Eyck-en jolas-esparru ederrenetako bat; abandonatutako orube huts bat zen, ondoko eraikinen hormen artean kokatutakoa; hori bera berritzailea izango da jada, ez baita parke edo plaza bat, eta hormak egituraren zati izango dira. Haurrak beren kasa jolastuko dira, baina esparruak ez ditu hirigintza-kanonak errespetatuko:

“Playgroundak nortasun berezia zuen azkenean, haur-ekipamendu generikoaren ideiatik harago, edozein tokitan ezartzeko altzarrietatik harago.”

hala, haurrak hirian eta hiriarekin jolas egiten duela onartzea ekarriko du horrek, hiriaren barnean eta edozein tokitan jolas daitekeela. Gainera, Aldo van Eyck Cobra taldearekin batera arituko da garai horretan; arte-talde garaikidea zen hori, funtsezkoa garai hartako Amsterdamen.

1952. urtean bertan ere proiektatu zuen Noguchi-k bere playgrounda NBERentzat: jolas-esparru bikaina izango da, baina ez da eraikiko, udal-teknikari batek betoa jarri ziolako. Lan horretan, jolasaren espazio mitikoak arretaz aztertzen dira, haurtzaroaren oroitzapenak, jolas-esparruaren azaleraren topologia jarraituari esker lotzen diren esperientzien aztarnategi batean bezala.

1952. urtean amaitu zen baita ere Le Corbusier-en “Unité d’Habitation” eraikina Marseillan: etxebizitza-multzo modernoaren paradigma izango da, ostatu kolektiboaren gai garrantzitsua planteatzen duena, eta, aurrerago, gure hiriak bete dituen bertsio pobrea, hondatua eta interesgabea izango duena. Hala ere, “Unité d’Habitation” eraikinak aitzindari izatearen indarra gorde du, eta metaforaren ahalmen orotarazlea du: hirian flotatzen duen itsasontzi baten antzekoa da, indar handiko egitura, bi solairutako etxebizitzekin eta altuera bikoitzeko hutsarte handiekin... Zoragarria da. Arkitektura modernoaren ikonoetako bat. Teilatuan, haurrentzako pabiloi txiki bat du, eguzkiarekin, airearekin eta zeruarekin lotuta dagoena eta bere garaian haur-eskola izan zena. Teilatu osoa hartzen du jolasak: topografiak eta harkaitz artifizialak ditu; tapiz magiko baten antzekoa da, eta haurrak han goian jolasten dira, zerura irekitako utopia horretan.

Lan horiek abiapuntu hartuta, goraldia izango da, eta, 1970-1975eko urteetara arte, hainbat egileren proposamenak sortuko dira hainbat kultura eta kokapenetan. Lan ugari argitaratu ziren: playgroundak eraikitzeko eskuliburuak, autoeraikuntzako liburuak, esate baterako pneumatikoak berrerabiliz, egurrekin landare-ontziak eginez... Esku-hartze berritzaileak izango dira benetan, gaur egun oraindik indarrean daudenak. Japoniak zeregin interesgarria beteko du, ekarpen propioak egingo baititu: Bigarren Mundu Gerran kalte handiak jasan zituen herrialde horrek, eta jolas-eremu bikainak eraikiko ditu, Mitsuru Senda-renak eta beste batzuenak... Nahiko argi dago haurrentzat eraikitzeko bulkada suntsipenarekin lotuta egon daitekeela. Noguchi-k New Yorken egindako playgroundari buruz hitz egin dugun arren, ez dugu ahaztu behar artista honek Kenzo Tange-ren “Hiroshima bridge” oroitzapenezko zubiaren eraikuntzan parte hartzen zuen bitartean marraztu zituela playgroundaren lehenengo zirrimarrak.

“Lan horretan, jolasaren espazio mitikoak arretaz aztertzen dira, haurtzaroaren oroitzapenak, jolas-esparruaren azaleraren topologia jarraituari esker lotzen diren esperientzien aztarnategi batean bezala.”

“Nahiko argi dago haurrentzat eraikitzeko bulkada suntsipenarekin lotuta egon daitekeela.”

1975. urtetik aurrera sortuko da jolas librearen oasi horien bideraezintasunari buruzko eztabaida sistematikoa, arriskua, segurtasuna eta antzekoak oinarritzat hartuta, eta atzerakorik ez duen gainbehera gertatuko da. Koiunturalki, horrekin batera nerabeen taldeen eta hiriko beste talde batzuen fenomenoak aztertu beharko litzateke beharbada, talde horiek espazio horiek bereganatuko baitituzte. Arriskuaren neurosi horrek jolasteko esparruen proiektu gehienak bertan behera gelditzea ekarri zuen, eta, horren ondorioz, jolasaren benetako laborategi gisa uler zitezkeen esparruen aberastasuna galdu zen; neurri horren justifikazio puntuala interes ekonomikoen –haurrentzako ekipamenduak ekoizten zituzten enpresak– eta politikoen –espazioen eta jolasteko moduen gaineko kontrola– ondorioz orokortu zen. Egia da istripuak gertatu zirela, baina txirristak eta beste elementu batzuen diseinua aldatzeko irtenbidea har zitekeen; horren ordez, espazio horiek guztiak bertan behera uzteko erabakia hartu zen –gaur egun akats handia dirudi–, eta haurrek hirian zuten presentzia aktiboa ulertzeko modu bat galdu zen: playgrounda.

Orduan, 80ko urteetan, postmodernismoak jokaera interesgarria erakutsi zuen: atzera egin zuen eta arkitektura historikoak berreskuratatu zituen. Marc Augé-k “Les non-lieux” (ez-tokiak) terminoa erabili zuen izenik eta aitortpenik ez duten tokiak izendatzeko: ertz lau-soak, hirietako aldiriak edo burbuilak inguru porotsu batean, hirian. Hainbat belaunaldik erabili zituzten toki horiek,

gauza gehiago gertatzen ziren horietan, transgresioak horien irudia eta nortasuna bereganatu zituen. Gure inguru hurbilera ekarrita, postmodernitatearen estetika Iruñera ere iritsi zela esan dezakegu, joera bikoitza eraginez: alde batetik, hondakin artifizialak eraikiko dira, jolasaren arkitekturatzat hartuko direnak, eta, bestetik, abandonatutako inguruak berreskuratuko dituzte. Bi ideia horiek bat egingo dute, baina eremu gogorak eta zurrunak izango dira, ikusgarritasun-arazoak dituztenak eta, askotan, oso arriskuetsuak. Greziako arkitekturak gogora ekarriko zituzten zutabeak eraiki ziren, bat-batekotasuna galdu zen, eta, nagusiki, paisaiaren arkitektura egokia lortzeko natura-ingurunearekiko lotura. Haurrentzako jolasguneen irudi soziala grafitien atzeko oihalarekin eratuko da; bi alor horiek modu aberasgarrian bat egin zezaketen –50eko urteetako Cobra taldeak halaxe adierazi zuen–, baina, 80ko urteetako testuinguruan bi alor horiek ez zeuden elkarren ondoan: hurbil egongo dira baina desadostasunak izango dituzte.

90eko urteetatik aurrera, gure ingurua udalen eta horiek gauzatutako kontratuen esku geratuko da ia erabat; baina toki-administrazioek ez dute normalean enpresen sormena sustatzen. Ez dago jolasaren kulturarik; aitzitik, Europako Iparraldeko enpresen –Kompan, adibidez– kalitatezko industria-diseinuan jolasaren kultura hori agertuko da, edo Europako erdialdeko kulturaren proposamen abstraktuagoak egingo dira, eta material naturaletan oinarrituko dira.

Jolas askearen inguruko interesa galdu egingo da.

Fenomeno merkantilista horrek interes

“Baina toki-administrazioek ez dute normalean enpresen sormena sustatzen.”

politikoari erantzungo dio: hiriko txoko mugatuak eta hesituak altzariz hornitzea, objektu hutsalekin, "haurren kuota" justifikatzeko.

Udalen kezka nagusia istripuen aurrean kalte-ordainen eskarrietatik babestea izango da; horrek lehen ez zuen garrantzia hartu du gaur egun, eta herritarra ere horren erru-laguna da. Adibide erraz batek argi adierazten du gainditu egin dela beharrezko segurtasunaren eta gehiegizko kontrolaren arteko muga: ezinezkoa da zuhaitz-enbor bat lurrean ezartzea. Jostailu bikaina da enborra, ezinezkoa da handik erortzea, baina egur naturala pitzatu egiten da, eta oso latza da; kontroletik kanpo gelditzen da, industriatik datozen kalitate-parametroen arabera.

Nola jokutzen da gaur egun? Enpresei eskatzen zaie beren tresna arruntak diseinuak segurtasun-irizpide murriztaileekin homologatzeko. Horrek merkataritza-jauzi handia dakar, noski. Enpresak dira jolasguneetan ezartzen diren elementuen esleipendunak, eta mantentze-lanez arduratzen dira; hala, horien gainean erabakitzeke eskubidea dute. Udalek, oro har, baldintza-orriak definitzen dituzte, besterik ez: "Hiru jolas-esparru bereizi behar dira, bakoitza x metro karratukoa, eta 3-6 urterako egokitutako bederatzita unitate ezarri behar dira". Absurdo horretan, horrelako zerbait jartzea baino ez zaie falta: "Debekatuta urteko urtarrilaren bata baino lehen jaiotako haurrentzat...".

Baina, azken hamar urteetan, herritarrek, taldeek, artistek, diseinatzaileek, paisajistek, etab. interesa agertu dute berriro ere jolasaren aurrean, interes hori gure hirietako eguneroko esparruetan baino gehiago beste lan berezi

eta adierazgarri batzuetan agertzen den arren. Herbehereetan, Alemanian, Austrian eta beste herrialde batzuetan, haurrentzako jolasguneetarako proposamen berriak sortu dira, gaur egungo oso estetika interesgarriak dituztenak.

Gure inguru hurbilean, krisi ekonomikoaren ondorioz, zenbait enpresa unitate gutxiago ezartzen ari dira, eta berrikuntzak egitea erabaki dute, merkataritza-lidergoa lortzeko ahaleginean. Gaur duela bost urte baino sormen handiagoko gauzak egiteko prest daude, baina, horretarako, administrazioek halakoak eskatu behar dituzte; zenbait enpresak lan-ildo bikoitza sortu dute: produktu bat homologatzeko gai dira, eta baita proiektu zehaztu bat egiteko ere. Diseinu bereziak egiteko aukera ematen dieten ekoizpen-teknikak erabiltzen dituzte, eraikuntza-sistema malguagoak; gauza bera gertatzen da haurrentzako hainbat jostailurekin: enpresek ez dute inolako traba teknikorik diseinua askeagoa egiteko, ekonomikoki bideragarria bada, behinik behin.

"Fenomeno merkantilista horrek interes politikoari erantzungo dio: hiriko txoko mugatuak eta hesituak altzariz hornitzea, objektu hutsalekin, "haurren kuota" justifikatzeko."

"Azken hamar urteetan, herritarrek, taldeek, artistek, diseinatzaileek, paisajistek, etab. interesa agertu dute berriro ere jolasaren aurrean."

Orain enpresa gehiago daude, eta, lehiakortasunak bultzatuta, berrikuntzak egin behar izan dituzte. Alde horretatik, Alemaniako eta Europako Iparraldeko enpresen jolas-proposamenak ere hor-txe daude: inplikazio ekologikoa, material naturalak, zura, oso pieza ederrak, etab. Enric Mirallesek, esate baterako, Bartzelonako “Diagonal mar” parkean ezarri ditu horietako batzuk.

Zure ustez, nolakoa da edo zer nabarmenduko zenuke haurtzaroko espazioaren bizi-esperientziaz edo esperientzia existentzialaz? Zein da espazioaren eta haurtzaroren arteko harreman hori?

Clara: Erantzuten saiatuko naiz, baina playgroundaren gairako baliagarria izan dadin saiatuko naiz.

Haurrak espazioa konkistatzea garapen existentzialarekin lotuta dago; haurraren hazkuntzari oso modu egituratzailean laguntzen dio horrek, eta denbora-egituraren desberdina da. Aurrean eta atzean terminoek zer esan nahi duten jakingo ez bagenu, akabo. Ezingo genuke bizirik iraun aurrealdea eta atzealdea zein diren jakingo ez bagenu. Aldiz, lasai asko bizi zaitezke bi, hiru edo lau urterekin gauza bat ordu erdi barru edo hiru ordu barru gerta-

tuko den jakin gabe, denbora gertae-rek zehazten baitute. Alde horretatik, denboraren ikuspegi oso bestelakoa dute haurrak zaintzen dituzten helduek. Baina argi ikusten dut, oinez hasten denean, haurrak egiten duen espazioaren konkista bestelakoa dela. Espazioa esparru existentziala da, beharrezkoa da hori konkistatzea bizirik iraun ahal izateko, eta esperientziaren alderdi aberatsa da oso. Une jakin batetik aurrera, haurrak autonomia handia du espazioan, eta helduok segurtasunari eta mugei buruz baino ez gara kezkatzen, oso gutxitan begiratzen diogu esperientziaren izaerari berari.

Existentziaren dimentsio espazial horretatik abiatuta, animaliak garen heinean egin dezakegun guztia agertzen da: iraulkatu, gure burua lurrera bota, zuhaitzetara igo, lau hankan ibili, igo, jait-si, gure burua babestu, haitzulo batean babestu, habiak eraiki, ibaien ertzean ibili, arrastoei jarraitu, aztarnak aurkitu, ezkutatu, ehizatu, jazarri... Gure baitan dugun animaliarekin lotzen gaituzte horiek guztiek. Haurrak etengabe jolasten dira sinbiosi horrekin: txakurrak, katuak edo narrastiak izatera jolasten dira jolas mimetikoetan, edo aho eta hortz-hagin dira ehizan eta jazarpen-jolasetan. Hori guztia gure animalia-izaerarekin eta naturarekin lotzen da, eta aukera horrek playgroundean agertu beharko luke. Nire ustez, oinarritzkoa izango litzateke hori. Beraz, jolas egiteko aukera emango duten tokiak proposatu behar ditugu: haitzuloak, mendixkak, zubiak, ibilguak...

Nire kasuan, playgrounda, jolas-egitura konplexu batek baino baino gehiago, Asturiasko herrian igarotzen nituen udetako zelaiek, mendixkek, zuhaitzek, errekek eta behiek osatzen dute. Bes-

“Espazioa esparru existentziala da, beharrezkoa da hori konkistatzea bizirik iraun ahal izateko.”

“Haurrak etengabe jolasten dira sinbiosi horrekin: txakurrak, katuak edo narrastiak izatera jolasten dira jolas mimetikoetan.”

talde, eraikitzeko printzipioa ere ager-
tzen da. Buckminster Fuller asmalari
amerikar handiak hauxe zioen: “Nik ka-
naberak, lokatza eta hariak erabiltzen
nituen eraikitzeko”. Garrantzitsua da
horri guztiari leku ematea.

Hala ere, honekin ez dut esan nahi
pertsona helduak bere jolas mime-
tikotik proiektatu behar duela, emaitza
mugatuz; hau da, kontua ez da horre-
lako zerbait egitea: “Herensuge erral-
doi bat ezarri dugu playground hone-
tan”. Izan ere, herensuge bat baino ez
da izango, eta horrek jolas sinbolikoa
mugatuko du, eta erregistro bakarra
eskainiko diegu haurrei. Hobe da egi-
tura xedeaniztuna izatea, malguagoa,
abstraktuagoa, hainbat esanahi izate-
ko aukera emango duena eta jolas
sinbolikoari modurik zabalenean bidea
irekiko diona. Jolas-eremuaren euska-
rriak berori zuhaitz edo sukalde izateko
aukera eman behar du, etxe edo itsa-
sontzi izateko aukera, ez hitzez hitz,
modu anbiguo eta askean baizik, jola-
sari hainbat zentzu emateko aukera sor-
dadin.

Zer ezaugarri izan behar ditu jolas- eremu on batek?

Clara: Hasteko, polisemikoa izan be-
harko luke. Hiri handian, naturaren
falta sumatzen dut. Baina ezin dugu
pentsatu natura haurrarentzat inguru
positiboak lortzeko bermea dela berez.
Asturiasko berrogeita hamar etxeko
herri bateko haurtzaroen kontakizunak
ditut gogoan, eta oso gogorrak ziren
haiek ere. Hiria zoragarria ere bada.
Playgrounda hiritarra da. Izan ere, he-
rri txikietan ez dago ez horren beharrik
eta ez baliabiderik. Hiri-inguruetan, ez
daukaguna izatea amesten dugu: zu-
haitz bat, mendixka bat, lurra...

Bestalde,aldi berean hainbat agertoki
izateko aukera eman beharko luke. Es-
parru horien diseinuak hainbat agertoki
izatea ahalbidetu beharko luke, haurrak
jolasa antola dezan, helduak egindako
diseinu itxiak ezer inposatu gabe.

Nire ustez, adin askotako haurrei zu-
zendentako playgrounda izan behar du;
hemen segurtasunaren gaia agertzen
da berriro, adinen araberrako bereizke-
ta egiteko. Ez da halako bereizketarik
egin behar; horren ordez, bereizketa
positiboak egin behar dira. Bereizketa
txiki baliagarriak ezar daitezke: haurtxo
txiki batek igo ezingo duen maila altu
samar bat, hala, haurraren autonomia
eta segurtasuna bermatzeko. Segurta-
suna eta desberdintasunak sortzen di-
tuzten ñabardura sotilak izan daitezke.

Garrantzitsua da urtebeteko haurrak
ondoan duen sei urteko haurraren jola-
sari begiratzea. Beharbada, ez da gai
izango horra gora igotzeko eta erortze-
ko, ez du arrisku hori biziko, baina ez
da hortik bereizita egongo. Arriskuei
nola aurre egin aztertu beharko litza-
teke, hesiak jarritz baino norberaren
esperientziatik eta jolasaren baliabi-
deak erabiliz. Segurtasunez arriskat-
zen duen jolasa da jolas horretara bere
kabuz iristeko gai den haurrarentzat
eskuragarria dena, haurrak nahikoa
segurtasunez erabil dezakeelako. Eta
hori da emantzipazioaren oinarria.

***“Hasteko, polisemikoa izan
beharko luke. Hiri handian,
naturaren falta sumatzen dut.”***

***“Adin asko esaten
dudanean, helduak eta
adineko pertsonak ere sartzen
ditut barnean.”***

Adin asko esaten dudanean, helduak eta adineko pertsonak ere sartzen ditut barnean, aniztasunari jolasaren eta gizatasunaren ikuspegitik begirata. Garrantzitsua da gizartekotzeko eremu bat izatea. Madrilen, ni bizi naizen auzoan, hiru parke daude, eta pertsona berak ikusten ditut beti horietan. Harreman iraunkorrek sorrarazten ditu horrek. Haur ezagunak aurkitzeak ere plazera sortzen digu, eta hiri handi bateko anonimotasuna hausten du horrek. Adin askotako pertsonak hartzeko eremua badira, anai-arrebek toki berera joateko aukera izango dute, eta gizarte-harremanei eutsiko diete. Hala, gizarte-ehuna sortzen da playgroundaren inguruan.

Zer iritzi duzu topologiaren edo lur-eremuaren ezaugarri dibertsifikatuei buruz?

Clara: Bai, funtsezkoa da alderdi hori ere aberatsa izatea eta zentzumenekin lotutako esperientziak proposatzea: kolorea, ehundurak, topografia... Baina nik ez dut ulertzen kolorea gaur egun ulertzen den moduan, jolas-parke guztiek erabiltzen duten moduan; adibidez, ahate hori bat jartzen dute. Ez dute baso imajinario bat, Ibarrolaren Oma basoa, adibidez, kolorea esperientziatik ezagutzeko aukera ematen duena, eta ez hitzezko ezaugarri estereotipatutik. Hau da, hizkuntzaren ezaugarri bat balitz bezala jokatzeko dute kolorearekin: “zuhaitz berdea, enbor marroiarekin”, “oilo horia”... Kolo-

reak zehaztu gabeko esperientzia izan behar du, irekia, aldakorra, zentzumenekin lotutakoa, hizkuntzaz kanpoko ibilbideen anibalentzian dabilena.

Bestalde, gardentasuna erabiltzen ikasi behar dugu baita ere; puntu honetan esan dezakegu hutsetik abiatu behar dugula. Proposamen interesgarria da benetan. Metakrilatoa eta polikarbonatoa den-dena jasan dezaketen eraikuntza-materialak dira. Ez dago gardentasunarekin jolas egiten duen inolako materialik jolas-parkeetan.

Soinu-esperientzia ere kontuan hartu beharko litzateke. Badira soinuarekin jolas egiten dute playgroundak, esate baterako Herbehereetan. Baina ez daude hirian, toki bereziak dira –parke tematikoak–, naturan egiteko ibilbideak eta interpretazio-zentroak dituztenak. Garrantzitsua izango litzateke hirian bertan aukera hori izatea.

Eta usaimenaren paisaiaren esperientzia?

Clara: Parke askok kautxu-usaina eta kontrol-usaina dute.

Laburbilduz, playground egokiak integratzailea izan behar du sozialki, adin askotako jendea hartu behar du, erdigunean egon behar du, auzoetan ere egitura lokalak izan behar ditu, polise-mikoa izan behar du, zentzumenekin jolas egin behar du, eta konplexutasun aberatsa izan behar du. Hiriko ekipamenduak sorrarazten duen itxaropen pobreaken aurrean, playground on batek ezusteko oparia izan behar luke beti.

“Funtsezkoa da alderdi hori ere aberatsa izatea eta zentzumenekin lotutako esperientziak proposatzea.”

BIBLIOGRAFIA

Hoyuelos, A. (2009). "Vivir los tiempos emocionados de la infancia". In AA.VV. Temps per creixer. Barcelona: Universidad Autónoma de Barcelona.

Jullien, F. (1999). Tratado de la eficacia. Madrid: Siruela.

Jullien, F. (2005). Del «tiempo». Elementos de una filosofía del vivir. Madrid: Arena Libros.

Puig, M. A. (2011). Ahora yo. Barcelona: Plataforma Actual.

Tonucci, F. (2013). Haurren hiria. Oñati: Txatxilipurdi.

Vechi, V. (2013). Arte y creatividad en Reggio Emilia. Madrid: Morata.

Aldo Van Eyck, "Playgrounds. Reinventar la plaza". En Playgrounds. Reinventar la plaza. Madrid: Siruela.

HAURREN AISIALDI PARTE—HARTZAILEA, EUSKALDUNA, HEZITZAILEA ETA HERRITARRA GARATZEN

Koaderno bilduma:



Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen



Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik



Nola egin udaleku parte-hartzailea



Nola egin ludoteka parte-hartzailea



Parkeak bizitzeko modu berriak